

Sergio Scariolo saskibaloia eta teknologiaz hitzegin zuen Iturripeko Campusean

2014/03/26

MUk antolatuta, Sergio Scariolo, David Gil eta Josu Larreategi MUko Goi Eskola Politeknikora hurbildu ziren atzo arratsaldean, beraien lana burutzeko erabiltzen dituzten teknologia berrien eta tresnen inguruan hitzegiteko.

80 lagun inguru gerturatu ziren beraien azalpenak entzuteko, hitzaldia pixkat berandu hasi zen eta luze joan zen, gaueko hamaikak pasatuta amaitu zelarik.

Bertatik, ideia asko ateratzeko aukera izan bagenuen ere, aipatzekoa, entrenatzaile taldeak entrenamendu eta partidu aurretik egiten duten lana. Partidu bat prestatzeko, lehenengo entrenamendua baino lehen, entrenatzaile taldeak, 40 baino gehiago ematen dute, arerioaren datuak eta bideoak aztertzen, hemendik jokalariei 15 minutuko informazioa emateko.

Aipatzekoa ere, partiduan hartzen diren erabaki denak aztertuta daudela jakiteak, egin den azterketa eta erabakitako jokamoldearen arabera izaten dela.

Eskerrik asko Baskoniako entrenatzaile taldeko Sergio Scariolo eta David Gili emandako hitzaldiagatik eta MU Ointxeko Josu Larreategiri antolaketan emandako laguntzagatik.

